

GOBIERNO DE NAVARRA
PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR
ECONOMIA Y HACIENDA
RELACIONES INSTITUCIONALES Y PORTAVOZ DEL GOBIERNO
ADMINISTRACION LOCAL
EDUCACION
SALUD
DESARROLLO RURAL Y MEDIO AMBIENTE
ASUNTOS SOCIALES FAMILIA JUVENTUD Y DEPORTE
CULTURA Y TURISMO
OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y COMUNICACIONES
VIVIENDA Y ORDENACION DEL TERRITORIO
INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO
SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Jurramendiko Mankomunikatearen proiektua, Viana eta Erribera urez hornitzeko, PSIS dela esan dute

19 udalerrik aterako die etekina proiektuari; tanga berriak egitea eta hoditeria sare berri bat jartzea aurreikusi da

Martes, 07 de junio de 2011

Lurralde Antolamendurako Batzordeak, Amelia Salanueva Murguialday Etxebizitza eta Lurralde Antolamenduko jarduneko kontseilari buru dela, Viana eta Erribera urez hornitzeko Jurramendiko Mankomunitatearen proiektua Udalez Gaindiko Proiektu Sektorialtzat (PSIS) jotzearen alde agertu da. Proiektuari 16 udalerrik aterako die etekina.

Toki erakunde horrek sustatu du jarduera eta honako helburu nagusiak ezarri ditu: Ebro ibaitik hurbil dauden Erreiberako herrien (Elizagorria, Mendabia, Lodosa, Sartaguda, Cárcar eta Andosilla) hornikuntza hobetzea, Mendabia eta Lodosa artean dagoen azpiegitura hidraulikoa jartzen dela ziurtatzea eta Viana Jurramendiko Mankomunitateko hornikuntza sistema orokorrera gehitzea.

Helburu horiek lortzeko, honako jarduera hauek burutuko dira, besteak beste: Sorladako loturatik Andosillaraino tutuak jartzea, Viana hornitzeko adar berri bat egitea, proposaturiko tutueri berrira ponpaketa bultzatzeko tutuak lotzea, Mendaza P-2n dagoen putzuaren ondoan beste bat aurkitzea, 60 km-ko tutueria harikorrak jartzea, beste tanga bi egitea (bata 1.500 m³-koa Elizagorrian eta bestea 3.000 m³-koa Andosillan) eta Vianako tanga handitzea guztira 3.000 m³ dituzten bi ontzi jarritz. Instalazio horiek lehendik dagoen hornikuntza sarera gehituko dira, tanga erregulatzailleak, Antzineko putzuak eta tutuek osatzen duten sarera alegia.

PSISen obrak egiteko 36 hile eta 30 milioi euroko aurrekontua (ordainsariak eta kalteordainak barne) behar izango dituzte gutxi gorabehera.

Honako udalerrri hauek aterako die onura proiektuari: Mendazak, Sorladak, Mueses, Los Arcoses, Piedramillerak, El Bustok, Santsolek, Elizagorriak, Torres del Riok, Bargotak, Vianak, Mendabiak, Sesak, Lodosak, Carcarrek eta Andosillak.